

2018KO URRIAREN 29AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2018ko uztailaren 12an, 18:35tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): M^a Isabel Machinandiarena Arrospide
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
ASTEASUKO UDALA (%2,49): M^a Pilar Legarra Kortajarena
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Olatz Iriarte
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
ELDUAINO UDALA (%0,39): Jose Angel Urkizu Odriozola
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Miren Karnele Pellejero Galarraga
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA (%2,73%): Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietza
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
ORENDAINGO UDALA (%0,32): Gorka Egia Arregi
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2018ko uztailaren 12ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180703.016bis-etik LE20180926.025ra.**
- 3. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoen aldaketaren hasierako onarpenaren proposamena. Udalek egindako ekarpenen berri ematea.**
- 4. Hondakinen informazio eta sentzibilizazio kanpaina.**

5. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoera onartzea (2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dena).

6. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Anoeta, Gaztelu, Orexa, eta Villabonako ordezkaritza gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueta 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkaritza jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

VILLABONAKO UDALA: Ordezkaria, Patxi Amantegi Zubiria

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2018ko uztailaren 12ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180703.016bis-etik LE20180926.025ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20180703.016bis

LE20180718.019

LE20180718.020

LE20180720.021

LE20180828.022

LE20180925.023

LE20180926.024

LE20180926.025

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoen aldaketaren hasierako onarpenaren proposamena. Udalek egindako ekarpenen berri ematea.

Lehendakariak gai honen inguruko aurrekariak azaldu ditu. Pasa den uztailean ospaturiko Batzarrean, estatutoen aldaketa mahai gainean utzi zen, zenbait izapide falta zirelako. Denbora honetan, estatuto proiektu bat adosteko, talde politiko desberdinez osaturiko lan talde bat aritu da.

Proiektu hau udalen eskura egon da epe batez, ekarpenak edo iruzkinak jaso ahal izateko, Amezketako udalarena jaso delarik.

Jarraian, estatutoak aldatzeko prozedura azaldu da, beti ere mankomunitateko gaur egungo estatutoetan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauak xedatutakoaren arabera. Batzar honetan hasierako onarpena erabakitzen bada, estatutoen 46.3 artikuluan adierazitako gehiengoarekin, espedientea jendaurrean ipiniko da hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 28 udalen iragarki tauletan argitaratuz. Ondoren, Foru Aldundiak bere txostena igorri beharko du, epe berean. Kontutan hartu behar da txosten honen izaera ez loteslea dela. Hurrengo pausoa 28 udalen udalbatzarren esku geratuko da, udalbatzar guztiek akordioa onartu beharko dutelarik, kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoarekin. Azkenik, estatuto berriak oso-osorik argitaratu beharko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Prozedura guztia 2019ko otsaila inguruan bukatuta egotea aurreikusten da.

18:40tan Alkizako ordezkaria bertaratzen da.

Ondoren, proiektuan azaltzen diren aldaketen berri ematen da:

1-Xedea: hiri hondakinen kudeaketa osoaz gain, beste 12 objektu sartu dira.

2-Zerga-sistema: udal bakoitzak, erabiltzen duen zerbitzuaren arabera ordainduko du, hau da, ez badu mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzu konkretu bat erabiltzen, ez du ordainduko.

3-Erabakiak hartzeko gehiengoak: orokorrean, Batzarrean hartutako erabakiek gehiengo soila beharko dute, beti ere haztatutako botoek eta bilerara azaldutako udalerriek gehiengo soila osatzen badute.

Hori bai, erabaki zehatz batzuk hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da haztatutako botoen eta legezko udal kopuruaren gehiengo osoa.

4-Batzorde Iraunkorra: organu hau desagertuko da, eta bere lekua Informazio Batzordeek beteko dute. Zerbitzu bakoitzeko Batzorde bat egongo da, eta bertan zerbitzu hori erabiltzen duten udalerriek partu hartuko dute.

Orain arte bezala, erabakiak Batzarrak (edo Lehendakariak, bere kasuan) soilik hartuko ditu. Komisioek bakarrik irizpideak proposatuko dituzte, ez dute ahalmenik izango erabakiak hartzeko.

5-Estatuto berrien aldaketa: etorkizunean estatuto hauek berriz ere aldatzea erabakitzen bada, ez da beharrezkoa izango udalerri guztien oniritzia, nahikoa izango da udalerri gehiengoaren aldeko botoa, beti ere Mankomunitateko gehiengoaren biztanleria ordezkatzeko badute.

Salpuesben bat dago: zerga-sistema aldatzeko erabakiak udalerri guztien aldeko botoa beharko dute.

Andoaingo ordezkariak hitza hartu du galdetzeko udal plenoetara eramango den txosten juridikoa nork egin behar duen, udalerri bakoitzaren idazkariak edo, aldiz, bakarra izango den guztientzat. Idazkariak erantzun dio orain aurkeztutako proiektua jendaurreko epean egon daitezkeen ekarpen eta alegazioekin beteko dela, honi gehitu beharko zaiolarik Foru Aldundiaren txostena. Hau guztiak osatuko du estatuto aldaketaren espediente, udal pleno bakoitzera eraman beharko dena. Gaineratzen du estatuto hauek Sasietako Mankomunitateak bere garaian aldatu zituenaren oso antzekoak direla, eta Foru Aldundiaren eta aplikatzen zaien legeen oniritzia dutela.

Jarraian, mankomunitateko Idazkariak Amezketako Udalak egin dituen ekarpenak azaldu ditu: gehienak zuzenketak dira ortografiaren aldetik. Beste zenbait artikuluei zehaztapenak egitea eskatzen du, ez bait dira argi geratzen, eta azkenik, diruzaintzako operazioetan eta fiskalitateko gaiak onartzeko gehiengoak berrikusteko eskatu du.

Altzoko ordezkariak galdetu du ea estatuto berrietan ez den aurreikusten hirigintzako zerbitzurik ematea, herri txikitan arkitekto edo antzeko profesionalak kontratatzea zaila gertatzen zaielako. Lehendakariak erantzun dio ez direla kontuan hartu horrelako zerbitzuak, baina jendaurreko epean egin ditzaketela beraien ekarpenak zentzu honetan. Ondoren ikusi beharko da Foru Aldundiak onartzen dituen ala ez bere txostenean.

Beraz, guztia aztertutik, Batzarrak, ahobatez, zeina Batzarraren gehiengo absolutoa suposatzen duen:

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoak aldatzeko proiektua hasieraz onartzea.

BIGARRENA.- Estatutoen aldaketarako proiektua jendaurrean jartzea hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako udaletxeetako iragarki oholetan argitaratuz, interesdunek hura aztertu eta alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da hilabete batez, epe hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.

LAUGARRENA.- Erakusketa publikoko epean aurkeztutako alegazioak eta Foru Aldundiaren txostenak egindako proposamenak aztertu eta onartu ostean, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalei mankomunitateko estatutuen proiektua onartzea eskatzea, Mankomunitatea eratzeke eskatutako quorumarekin onartutako udal batzarren erabakiaren bidez.

4. Hondakinen informazio eta sentzibilizazio kanpaina.

Teknikariak hitza hartu du azaltzeko eskualdean zabor bilketa mota desberdinak daudenez, komeniko litzatekeela zerbitzu-gida bat kaleratzea, jaso ahal izateko bilketa sistema guztiak eta bakoitzaren ezaugarriak. Proposatzen da herri handiek gida propioa izatea, eta herri txikietan, aldiz, bi motatako gida izatea, errefusaren bilketaren arabera.

Gidaren bidez, herritarrari azaldu nahi zaio frakzio eta bilketa sistemaren arabera nola kudeatu behar duen bere zaborra (edukiontzietan, atez-ate, konpostajea...). Adibidez, organikoa zein edukiontzitan utzi behar duen, giltza duen ala ez, zein poltsetan eta nola eskuratu, txartela erabili behar duen ala ez, ordutegia...Hondakin mota bakoitzean zer bota behar den ere jasoko du gidak.

Gastuei dagokionez, 12.000€ inguru izatea kalkulatu da, aurtengo aurrekontuko partida bati lotuko zaiolarik.

Gidaren banaketari dagokionez, landa eremuko herrietan udal bakoitzaren esku uztea aurreikusi da; Herri handitan, aldiz, mankomunitateak berak egingo luke.

Epeari buruz, datorren urtarrilean banatzea aurreikusten da, eta jasoko ditu bai Andoainen eta baita Asteasun ere egingo diren aldaketak bilketa aldetik.

Beraz, Batzarra jakinaren gainean geratu da.

5. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoera onartzea (2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dena).

2018ko uztailaren 4an Estatuko Aldizkari Ofizialean 6/2.018 Legea argitaratu zen, 2018 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. Bertan, beste hainbat gaien artean, 2018 urterako sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak aurreikusten dira eta hauek aplikatzeko eman behar diren baldintzak, Legearen 18.bis atalean azaltzen diren bezala:

-Lehena, 2018 urtean sektore publikoko langileek %1,5eko ordainsarien igoera izango dutela 2018ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2017ko abenduaren 31ean zuen ordainsariekin.

-Bigarrena, 2017 urteko Estatuko Barne Produktu Gordinak %3,1eko portzentaian badago edo hau baino altuagoa bada, 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste %0,25eko igoera

aplikatu ahal izango da. Dena den, igoera hau aplikatu ahal izateko bi baldintza eman behar dira:

- Estatuko Estatistika Institutoak argitaratzea 2017ko Barne Produktu Gordina eta hau %3,1ekoa edo altuagoa izatea. Baldintza hau jadanik bete da.
- Estatuko Ministro Kontseiluak onartu beharko du igoera honen aplikazioa. Baldintza hau ere joan den uztailaren 13an egindako bilkuran onartu zuen eta hortaz, %0,25eko igoera aplikatu ahal izango da ere bai.

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko langileen (laboral zein bitarteko funtzionari) ordainsariak %1,5ean igotzea, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitartean.

BIGARRENA.- 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste %0,25ean igotzea, hau da, oro har %1,75ko igoera aplikatzea ordainsarietan.

7. Galde-erreguak.

Tolosako ordezkariak hitza hartu du azaltzeko bere udalak egin berri duela ibaiaren garbiketa, Tolosari dagokion zatian, Arrantza Federazioarekin batera. Federazio honen borondatea lan hau egiteko azpimarratu du, baina aldi berean, udalek baliabideak jar ditzaten eskatzen dute. Beraz, datorren urterako, proposatzen du mankomunitatearen gain hartzea ibaiaren garbiketa, eta denon artean ordaintzea, aurrekontuko partida baten kargura.

Andoaingo ordezkariak adierazi du bere herrian urte batzuk daramatzela lan hori egiten, Eguzki-rekin batera.

Lehendakariaren ustez, mankomunitateari, diru aldetik, ez zaio asko kostatuko, eta artilearen bilketa jarri du eredu bezala. 3.000 € inguruko gastua izan du, nahiz eta mankomunitatearen eskumena ez izan (hondakin mota hori ez da hiri hondakina kontsideratzen).

Teknikariak proposatu du obretako bandejak jartzea ibaiaren zaborra jasotzeko, eta behin bete ondoren zabortegira bideratuko liratezke. Kasu honetan, bandejak dirudite edukiontzirik egokienak, alde batetik, hondakin kopuru handiak ateratzen direlako eta bestetik, askotariko zabor mota delako (burnikiak, egurrak, plastikoak..), beraz, oso zaila delarik haien sailkapena eta bereizketa egitea.

Azkenik, Berastegiko ordezkariak proposatzen du sentzibilizazio kanpaina bat burutzea ibaiaren garbiketarekin batera.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta hogeitahamabost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA